

# Marmari

8. zenbakia / 2003ko abendua

# Leizako

aldizkari  
gaztea




«Abenduko eguna,  
argitu orduko iluna»

«Negua hotz?  
Marmari bero»

- Leizako kultur taldea
- Unai Zabaletari elkarrizketa
- Leizako haur eskola
- Harramarroak
- Leizako erreketan
- Denborapasak, bitxikeriak...



# ale honetan:



3. or. Editoriala.

4-6. or. Leitzako kultur taldea.

7. or. «Joan dezaket».

8-11. or. Karramarroak Leitzako erreketan.

12-13. or. Bota puntua!

14-18. or. Elkarrizketa. Unai Zabaleta.

19. or. Ezetz asmatu, Pertsonai ezkutua.

20-23. or. Leitzako haur eskola.

24-25. or. Leitzako bizitza soziala.

26. or. Testa

27. or. Eroskopoa, Txizteak.

- Argitaratzailea: MARMARI euskara taldea
- Diseinua: Allende Arnaiz
- Maketazioa: www.eragin.com
- Argazkiak: Unai Zabaleta, Miel Mari Elozegi, Junkal Otxotorena, Leitzako haur-eskola, Mikel Illarregi, Dabid Anaut
- Laguntzaileak: Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Udalen Euskara Zerbitzua



# «Negua hotz? Marmari bero»

**M**armariren 8. zenbakia. Beste horrenbeste eta gehiago ere egingen ditugulakoan, lanean jarraitzen dugu. Zenbaki honetan, aurrekoetan bezalaxe, Leitzari eta bertako kontuei begiratu bat ematen ahalegindu gara. Ezin ditugu gaiak erabateko sakontasunez landu, horretarako liburuak argitaratu beharko baikenituzke; baina herriko gaien inguruko informazioa ematea da gure helburua, gaiak plazaratzea, herriko bizitza soziala ezagutaraztea, eta, jakina, eztabaida sortu eta piztea.

Bizitza soziala esan dugu eta hori da, hain zuzen, zenbaki honen ardatza. Arti-

kulu batek izenburu hori bera dauka, «Leitzako bizitza soziala», baina beste zenbait erreportaje edo lanek hori bera dute mintzagai: «Leitzako Kultur Taldea», «Haur-eskola»... Izan ere, herriko talde, erakunde edo elkarteak dira herriari bizitasuna ematen diotenak. Eta bizitasun hori oso garrantzitsua delako, MARMARI aldizkarian saiatuko gara pixkanaka talde edo erakunde horien guztien berri ematen. Denok ezagutu ditzagun, eta nahi izanez gero, parte har dezagun.

Atal berriren bat ere badugu zenbaki honetan. «Bota puntua!» deitu diogu, eta horixe da: guk puntua eman eta zuek

jarraitzeko. Eztabaidarako aitzakia, besterik gabe. Eztabaida inolaz ere itxi gabe, ireki besterik ez dugu egin nahi, herrira eta kalera eraman nahi baitugu eztabaida. Gaia guk jarri, baina iritzia denok eman dezagun.

Eta bestelako atal interesgarriak ere baditugu, herria hobeki ezagutzen lagunduko digutenak: elkarriketa, bertako karramarroaren inguruko argibideak, test ariketa... Eta, jakina, euskararen inguruko ohiko hausnarketatxoak, eta baita ohiko atal entretenigarriak ere.

Beraz, aurkezpen honetan gehiago luzatu gabe, on egin.

## Ezagutu ARGIA astekari berriua

MARMARIren ale honekin batera, ARGIA astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen duen postal bat jasoko duzu.

Jakingo duzunez, ARGIA uda aurretik eraberritu zen. Itxuraz eta mamiz berriua da: diseinu gaurkotuagoa, itxura gazteagoa, informazioaren antolaketa berritzailea... Iritzi saila ere zabaldu egin da eta aisialdia eta kultura nabarmendu egin dira. Dena helburu bakarrarekin; informazioa, analisia eta entretenimendua astero kalitatez eskaintzea euskal irakurleei.

### ESKAINZA BEREZIA MARMARIREN IRAKURLEENTZAT

Berrikuntza hauek direla medio, ARGIA astekariak bere burua ezagutzera emateko kanpaina bati ekin dio. MARMARIk ere, ARGIA 3 astez doan jasotzeko aukera berezi hau eskaini nahi die bere irakurle guztiei.

ARGIA eraberritua ezagutu nahi baldin baduzu beraz, postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela, 943-371545 telefonora deitu (Xabierrez galdetu) edo zure datuak eta eskaera [harpide@argia.com](mailto:harpide@argia.com) helbidera bidali.

# LEITZAKO

## Kultur Taldea

Leitzako Kultur Taldea 1978 urtean sortu zen. 25 urte, beraz, talde emankor hau lanean hasi zenetik. Urte horietan jende ugari pasa da bertatik, eta asko izan dira beren karpina egin dutenak: taldearen barruan, baina baita momentu jakinetan laguntzaile modura ere. Gaur egun, lau lagun dira taldeari bizirik eusten diotenak eta lanaren zama handiena beren bizkarrean daramatenak. Zer esanik ez, taldean jende gehiago biltzea on litzateke, eta espero dezagun artikulu hau irakurrita bateren bat animatzea.

### FUNTZIONAMENDUA:

Kultur taldea urritik ekainera biltzen da, astean behin, eta hor dauden ideien inguruan erabakiak hartu eta urteko egitaraua aurrera ateratzen saiatzen da; hilero ekitaldiren bat antolatzen du, bai berak bakarrik edo baita herriko beste talderen batekin elkarlanean ere.

Taldea guztiz irekia

da, edozein etor daiteke eta bertan partaide izan inolako aitzakiarik gabe, lasai ederrean. Ideiak, asmo politen baten jabe, lanerako gogo... izanez gero, aurrera!!

### JARDUERA:

Antolatzen diren ekitaldien ezaugarri komun eta bakarra, euskal kulturare-

kin zerikusia izatea da, eta hori hain eremu zabal, anitz eta aberatsa izanik, era guztietako ekitaldiak antolatu izan ditu oraindano, eta aurrerantzean ere horrela jarraituko du: nola hitzaldiak, hala antzerki emanaldiak; nola ibilaldiak, hala tailerrak; nola jokoak, hala ikastaroak; nola erakusketak, hala kontzertuak; nola lehiaketak, hala irratsaioak; nola... Beraz, era guztietako ekitaldiak antolatzen dira, beti mota desberdinekoak tartekatzen saiatuz eta adin desberdineko partaide, ikusle, jendearentzat bideratutakoak.

### EGOITZA:

Ez du egoitza propiorik bere jardunerako. Bilerak eta egiteko, udaletxeko lehenengo solairuan gela bat erabiltzen du. Antolatutako ekitaldiak gauzatzeko

Maxurrenea herriarentzat izan dadin egindako mobilizazioa



Kultur taldeak antolatutako mugaz mugako ibilaldia



garaian, ordea, herri honetan dugun azpiegitura falta nabarmen eta zuzenezuzenean pairatzen du; bide batez, kultur etxe baten aldeko aldarria egiteko aprobetxatzen du aukera hau kultur taldeak. Harira itzuliz, beraz, herriko zinema, udaletxeko konferentzia gela, Batzar Aretoa bera, eta elkarte pribatuak erabiltzen dira ekitaldietarako.

### **SORRERAKO GARAIA ETA GIROA:**

1978. urtean, duela 25 urte luze, orain bezalatsu euskalduna izatea arriskuz betetako egoera eta izatea zen garaiak zirelarik, ikastolaren inguruko girotik sortu zen kultur taldea. Orain kontrakoa badirudi ere, esate baterako, urte haietan atarian euskaraz hitz egiten aditzea ez zen oso-oso ohikoa ere: helduen eta gazteen arteko hizkuntza gaztelera zen eta umeena ere hori izateko bidean zihotan. Hau ikusirik, beste arrazoi batzuen artean, herrian giro euskalduna bizteko urrats modura, Kultur Aste bat antolatzeke asmotan jende sail bat bildu zen. Ez zen arrazoi bakarria izan, zalantzarik gabe, baina bai arrazoiatariko bat. Eta horixe izan zen sorrera, orduz geroztik urtero- urtero antolatu baita. Hasierako jende multzo hura antolatuz joan zen eta herriko eragileen parte hartzea bideratuz joan zen, eskola, ikastola, guraso elkarteak, gau-eskolako... ordezkariak elkartuz.

Gerora, Kultur Asteaz gain, urtean zehar bestelako ekitaldiak antolatzeari ekin zitzaion, gaurko egoerara iritsi arte.

### **TALDEAREN HELBURUA: KULTUR DINAMIKAREN GARRANTZIA:**

Taldearen helburua herrian euskal kultura bultzatzea eta sustatzea da, zalantzarik gabe. Gure herria ttikia izanik, taldeari garrantzitsua iruditzen zaio kultur ekitaldiez herrian bertan gozatzeko aukera eskura jartzea, eta interesgarritzat jotzen da hirietan ohikoak liratekeen ikuskizunak, gutxienez urtean behin, herrira ere ekartzea; esate baterako, urte bukaerako antzerki saioa. Finean, euskal kulturarekiko zaletasuna sortzea da helburua, kultura kontsumitzeko ohitura sortzea.

### **25 URTEKO IBILBIDEAREN ERREPASO AZKARRA:**

Gorago aipatu den moduan, hasieran herriko taldeen bilgunea izan zen eta Kultur Astearen antolaketaz arduratzen zen. Gerora, ordea, urtean zehar bestelako ekitaldiak antolatzeari ere ekin zion eta urte mordoskan kide dezentez parte hartzen zuen; antolaketan, eta baita ekitaldietan ere, zena zelakoa, jende kopuru mardulak erantzuten zuen. Garai haietako Kultur Asteko Iparralde Eguna, herriko erreferentzia bilakatu zen.

Azken bolada luze samar batean, ordea, jendea selektiboago bihurtu da eta ekitaldi mota batzuetara jende mota bat joaten da. Oraindik ere badira herri osoak edo mota guztietako jendeak parte hartzen duten ekitaldiak (antzerkia, erakusketak, kontzertuak), baina hitzaldiak, mahai inguruak, bertsolariak, diapositiba emanaldiak... eta antzekoetan kopuru murriztagoak hartzen du parte.

### **EGINDAKOAK:**

Hauek dira urteotan egindako ekintza edo ekimen garrantzitsuenetako batzuk:

- Kultur Astea, urtero-urtero egiten dena
- Iparralde eguna (garai bateko kultur astearen barruan)
- Eskulangileen erakusketa (kultur astearen barruan)
- Tresna zaharren erakusketa (Aurrera elkartearekin).
- Leitzaketa mahai-jokoa (Euskara Zerbitzuarekin).
- Abenduko antzerki emanaldiak

### **AZPIEGITURA, DIRULAGUNTZAK, LAGUNTZAILEAK:**

Lehenago aipatu bezala, bilera-leku gisa udaletxeko gela ttiki bat erabiltzen da.

Gela hau ez da batere egokia lanerako, eta toki egoki horren beharra



sumatzen da; talde honek ez eze, herriko beste eragileek ere erabiltzeko moduko bilera-aretoa alegia. Ekitaldiak egitera-koan ere areto egokirik ez dago herri osoan. Gorago aipatutako gela horietxek daude herri guztian antolatzen diren ekitaldietarako. Ez du axolarik zer ikuskitzun, ekintza,... den, nola edo hala horiekin konformatu beharra dago, edo horiekin moldatu beharra dago. Azpiegitura falta nabarmena eta eskandalagarria da Leitzan. Ikusi besterik ez dago zenbat eta zenbat ekitaldi antolatzen diren herrian, bertako talde, elkarte eta erakundeetatik eta gero horiek burutzeko garaian zer hutsune dagoen: erakusketa aretoa, hitzaldi edo mahai-inguruetarako, diapo-bideo-filmak ikusteko,... Hots, argi eta garbi, KULTUR ETXEA aldarrikatzen dugu, horixe baita behar hauek asetzeko biderik egokiena.

Dirulaguntzei dagokienez, Kultur Asterako Udalak ematen duen kopuruari, herriko industria ttiki, komertzio, ostatu eta eskolek ematen dutena erantsi behar zaio. Bianako Printzea erakunde-ari dirulaguntza eskaera egiten zitzaion duela bi urte arte, baina behin bakarrik eman zuten, 75.000 pezetakoa, eta hori bi plazotan gainera. Egundoko paper dantza prestatu behar zen, eta deus ere ez emateko. Gauzak horrela, erabaki zen gehiago ez eskatzea. Urte osoko bestelako ekitaldietarako, berriz, Artea eta Kul-

tura programari esker egiten da hein handi batean.

Laguntzaileak, beraz, goraxeago aipatutako horiek izanen lirateke ekonomiari dagokionez. Eta gero, batez ere Kultur Asteko lanerako, lagun talde bat beti prest egoten da: sukaldariak, erretzaileak, zerbitzariak, talogileak, zain-tzaileak... Bakarren bat ahazten bada, barka beza. Horiek ere laguntzaile ez ezik kide ere badira. Denak ere, kultur taldeko kideekin batera, borondatezko lanean aritzen dira eta hori txalagarria eta zoriontzekoa ere bada, dudarik gabe.

### 25 URTE HAUETAKO BALANTZEA:

Aberasgarria. Hasierako talde hartatik hasita egundainokora iritsi arte, bide luze honetan, saiatu izan da herria pizten. Ziur gaude, neurri batean behinik behin, herriak gaur egun duen bizitasuna lortzen, hein batean, lagundu eta horretan eragin dela. 25 urte luze hauetan talde-ikaroren diren kideek, antolakuntzan lagundu duten kideek, (duela bost urte, 20. urteurrena zela-eta, ia 100 lagun elkartu ziren), borondatez, beren denbora librearen zati bat honetan inbertitu dute, herriaren eraikuntzan, eta hori nabari da.

Esan behar da, bestalde, jende asko ezagutzeko balio izan duela, lan mota desberdinak egiten ikasteko, gure kultur

ondareaz jabetzeko... alderdi horretan ere erabat aberasgarri suertatu da kide-entzat berentzat.

### HERRITARREN HARRERA:

Orokorrean harrera ona da. Ekitaldi batzuk, normala den moduan, arrakastatsuago izaten dira, beste batzuk ez hainbeste. Inoiz hutsik egiten ez duen ekitaldia, herriko norbaitek aurkeztutako edozein motatako ikuskizuna izaten da. Horietan ez da inolako beldurrik: beti jende asko etortzen da eta hagitz gustura gelditzen da jendea, ikuskizunaren emalea, eta, zer esanik ez, baita antolatzaitzaileak ere.


### GAUR EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNA:

Gaur egun, kide kopuruari dagokionez, esan daiteke taldea krisian dagoela. Kide berri bat sartu da oraintsu, baina hala ere lau lagun ez osatuta dago. Berriak behar dira, gehiago; lagun berriaren ereduari jarraituz gongoratzen dugu herri osoa eta ea bakarren batzuk animatzen diren. Lasai ederrean etorri, eta asmo edo ideiarekin bat buruan duzuela baldin bada, hainbat hobe.

### LEITZAKO KULTUR TALDEA



# JOAN DEZAKET



«Nik'e joan dezaket» eta «Gaur etorri dezakezo»

Alegia, erdarazko:

«Yo también puedo ir» eta «Hoy puedes venir»

**n**orbaitek esanen du bata, goikoa, euskara dela eta bestea, behekoa, erdara; gaztelania, hain xuxen.

Bada, gure ustez beheko esaldiak erdara dira, noski, baina ezin da esan «Nik'e joan dezaket» edo «Gaur etorri dezakezo» euskara denik. Esanen genuke biak erdara direla, nahiz eta goikoak euskal kolorea izan.

Eta zergatik ekarri dugun kontu hau Marmari aldizkarira?. Benetan, Leitza bezalako herri euskaldun batean, hizkuntza bizi-bizia gorde duen herri batean, euskaraz ongi hitz egiten den herri batean, «joan dezaket» bezalakoak hain maiz entzutea harrigarria delako.

Askotan entzun dugu leitzarren ahotik «joan dezaket» bezalako esaldi xebreak. Hasieran uste genuen zenbait leitzar gazteren berrikuntza edo kalko traktetsa besterik ez zela. Baina azkenaldi honetan, eta horretara jarrita, ohartu gara «etorri dezaket» bezalakoak barra-barra entzun daitezkeela, haur, gazte eta baita helduen ahotan ere.

Bai, gure eskema arinak hankaz gora jarri baditu ere, esan behar da 50-60 urte bitarteko hiztun on bati baino gehiagori entzun dizkiogula horrelakoak, eta behin baino gehiagotan gainera. Hizketa bizi-bizi eta azkarrean entzun liteke, baina beste batzuetan, pentsatzeko denbora emanda ere, «nola esanen ziñuke *puedes venir?*» galderari «*etorri dezakezo*» erantzun digute. Harrigarria, benetan!

«Ni're joan natteke»  
«Gaur etorri zattezke»

Ez dira arrotzak, ezta? Bertako formak dira, goiko esaldia euskaraz esateko moduzuzena. Aditz-forma arrunt samarrak dira, ez dira «giñeuzkenen» edo «giñemazkiñenen» forma bakanagoak edo konplexuagoak. Hala ere, «joan dezaket» horrek sekulako arrakasta lortu du.

Gero, batzuetan, jendea espantuko hasten da leitzar bati «dozo» esan beharrean «duzu» ateratzen bazaio. Espantuka hasi eta hurrena berak «egon dezaket» esanen dizu, lasai asko! Hori zer den ez dakigu, baina ez noski Leitzako euskara.

Egia da hizkuntzak aldatuz doazela, eta aldaketa nahiz berrikuntza ugari onartu beharko dugula, purismo edo garbizalekeria itsua alde batera utzita. Baina «joan dezaket» beste zerbait da, erdara gordin-gordina gure ustez, euskararen berniza emanda. Besterik ez dugunean,

**Baina «joan dezaket»  
beste zerbait da,  
erdara gordin-gordina  
gure ustez,  
euskararen berniza  
emanda.**

tira, inguruko hizkuntzetatik hartu beharko dugu hitzak eta formak, beldurrik gabe, gainera; baina «etorri zattezke» forma baldin badaukagu, zergatik «etorri dezakezo» esan?

Askotan entzun izan dugu Leitza askok «toroa» edo «jamona» esaten dutela, «zezena» edo «urdaiazpikoa» esan beharrean. Bai, hizkuntza indartsu baten eraginaren erakusgarri garbia. Baina «toroa» edo «jamona» esatea, benetan, ez da deus ere beste horren ondoan, «egon dezaket» horren ondoan.

Okerrena da horrelako kalkoak normaltzat jotzen ditugula eta ez diogula deus arrarorik ikusten. Ez gara hemen hasiko hizkuntza zuzenaren inguruko meza ematen, nahikoa zuzentzaile eta araua-bete-erazle-sutsu-aspergarri bada-goelako toki guztietan. Zuzenkeria eta euskara jator-garbi-zuzenaren obsesioa ez da batere mesedegarria, baina gaurko adibidea, zinez, hori baino askoz gehiago da. Hizkuntzaren osasuna era askotan neurtu daiteke, baina horrelako adibideek ere zer edo zer erakusten digute. Adibide bat besterik ez da, ez gara dramatismotan hasiko, baina argigarria ere bada.

Ohi den bezala, gogorarazi dezagun ez dugula dotrinarik eman nahi, ez dugula araurik eta agindurik emateko inolako asmorik. Besterik gabe, gure kezkak eta burutazioak plazaratu nahi ditugu, nahi duenak gauza hauetan pentsatzen neuro-na batzuk erre ditzan.

# KARRAMARROAK

## Leitzako erreketan

**H**onez gero jende askok jakingo duen bezala, hain ugari izatetik, ia guztiz desagertzera egin du bertako erreka karramarroak azken 25 urteotan. Dagoen ezjakintasunak, erreken egoera kaxkarrak, eta ikusiko dugun abar luze batek etorkizun iluna eskaintzen diote, zoritxarrez, ibai eta erreketan hain paper garrantzitsua betetzen zuen animalia honi.

Karramarro arrunta edo bertakoa, maskor (azal) gogorrez jantzitako animalia da. Muturraren puntatik atzealderaino 11 cm-ko luzera du, eta pisua 80 gr. ingurukoa izaten da. Animalia honen 10 hanketatik, lehen pare matxarda (pintza) indartsuz hornitua dago. Jende askok

bestela uste badu ere, ibai-karramarro aurreraka ibiltzen da eta igerian soilik egiten du atzeraka, buztana gorputz azpian kolpeka uzkihurtuz. Kolorea, berriz, aldakorra izan daiteke, baina beti ere oliba ilunak edo arre-berdeska nagusi

sitzen da. Karramarroa plateran soilik ikusi dutenek kolore gorria duela esango dute, baina hori egosten denean gelditzen den pigmentu gorriarengatik da. Espezie hau ezagutzeko, ordea, ezaugarri hauek ez dira aski, duela ez asko gure ibai eta erreketan, jatorriz amerikarra den beste karramarro-espezie bat zabaldu


### IA GUZTIZ DESAGERTZERA

### KARRAMARROAK

baita: seinaledun karramarroa. Hona hemen bi espezie hauek bereizteko ezaugarriak:

- Bertako karramarroa seinaleduna baino txikixeagoa da eta bigarren hori, gainera, matxardetan «seinale» edo orbain zuri nabarmena edukitzeagatik erraz bereiz daiteke.
- Matxardekin jarraituz, karramarro arruntarenak pikortsuak dira. Seinaledunarenak, aldiz, leunak.
- Biak ur garbitan agertzen dira, baina





bertako karramarroa, ibaien goialdean geratuta da, seinaleduna ur epelxeagotan nagusitu egiten baita.

## BERTAKO KARRAMARROAREN BIOLOGIA

Karramarro arrunta, beraz, ur garbi, fresko, eta oxigenatuetakoa espeziea da eta goi-mendiko errekek baino, erdi-parekoak nahiago izaten ditu bizitzeko. Garapen hobereana ur kalkareoetan, alegia, inguruak kare-haitzezkoak diren lekutan ematen da, karramarroak kaltzioa behar baitu azala eratzeko. Bestalde, gordelekutan aberats diren errekek atsegin zaizkio, harritsuak eta zulo ugaridunak. Ibai eta errekez gain, aintzira, urtegi eta kanaletan ere bizi daiteke. Normalean, harripean edo landaretzan gorderik pasatzen du eguna eta iluntzean ateratzen da jatera. Orduan, landare, intsektu, hildako animalia eta abarren bila hasten da. Karramarroak mota guztietako materia organikoa jaten duenez, ur gezetako oreka eta garbitasuna mantentzen laguntzen du.

Iraila-urria aldera arrak emeen bila

hasten dira, eta hauek ernaldu ondoren emeen errutea gertatzen da. Emeak batez beste 60 arrautza jarri eta 6 hilabetez abdomenean lotuta eramaten ditu udaberriari larbak jaio arte. Hauek aste batzuk beharko dituzte helduen itxura hartu eta amarengandik banatzeko.

Karramarroaren gorputza maskor gogorrez estalita egoteak hazteko arazo franko ekartzen dio, eta kanpo estalki hau kentzen duenean soilik haz daiteke, hurrengo maskorra eratu arte. Gainera, denbora-tarte hau larritasun handikoa izaten da karramarroarentzat maskor faltan babesik gabe egoten delako. Maskor zaharra erantzi eta berria eratu arte egun gutxi igarotzen dira, eta jadanik aipatu dugunez, kaltzioa dela eta, ur alkalinoetan askoz errazago egiten dute hori. Lehen urtean 5-7 aldiz mudatuko du maskorra eta helduek urtean bitan: udaberri eta udazkenean. Hazkuntza motel xamarreko espeziea da, eta 3-4 urte beharko ditu heldutasunera iristeko.

Garai batean karramarroa Europa zentrala, hegoaldea, Britainiar Irlak... eta abarretan bizi zen. Baina gaur eguneko egoera oso bestelakoa da, Iberiar Penintsulan eta Europako beste leku askotan ia guztiz desagertu baita. Euskal Herriko eta Leitzako egoerari buruz ere, beste hainbeste esan genezake. Duela 30 urte arte Euskal Herriko ibai eta erreka gehienetan bertako karramarro ugaria zen. Leitzan, ez omen zen inoiz oso ugaria izan, Larraun aldeko beste hainbat errekekin

alderatuz, behintzat. Besteak beste, Gorritarango errekan, Erasotekoan edo Leitzarangoan bizi zen, alegia, lur beltzeko edo kare-haitzezko mendietatik datozen uretan. Leitzalarrean, aldiz, lur gorriko edo siliziozko mendiak daude eta hango urak ez dira egokiak karramarroentzat. Garai haietan, arrantza edota karramarrojateak egiteko ohitura zegoen, baina honek errekekako karramarroen populazioetan eragin handiegirik ez zuela zirudien. Urte gutxitan ordea, jaitsiera izugarria pairatu zuten populazio guztiek ia desagertu arte. Zer pasa da bada honelako hondamendia gertatzeko?

## KARRAMARROEN GAITZA

Honen arrazoi nagusienetarikoa, onddo batek sortutako gaitza da, «karramarroaren izurritea» edo afanomikosia izena duena. Dirudenez, gaitza sortzen duen onddoa Ameriketatik Europara ekarritako karramarroen bidez ailegatu zen gure erreketara, eta urte gutxitan bertakoen populazioak suntsitu zituen. Onddo honen eraginez, karramarroen maskorra ahuldu eta hankak paralizatzen dira eta 10-15 egunen buruan guztiak hiltzen dira.

Dirudenez, afanomikosia Italian agertu zen lehenengoz joan den mendebaren bukaeran eta gero Europan zehar hedatu zen. Espainian, 1958an gertatu ziren lehen heriotzak Valladoliden eta 1965ean Sorian. 1979an, berriz, Espainia guztira zabaldu zen. Euskal Herrian ere

**EGIN DU BERTAKO**

**AZKEN 25 URTEOTAN**

Bertako karramarroa Leitzako erreka batean.  
MIEL MARI ELOSEGI



Karramarro seinaleduna, Ameriketatik ekarri eta bertako erreketan askatu dena. Matxardetako (pintzetako) marka txuriarengatik ezagutzen da. MIEL MARI ELOSEGI

1978an hasi zen hilkortasuna hedatzen eta honen sorrera Ameriketatik ekarri eta gure ibaietan sartutako karramarro gorrian edo seinaledun karramarroan egon liteke. Amerikar espezie hauek gaitza eduki arren, bizirik iraun dezakete, gaitza haien jatorrizko bizilekuan betidanik egon delako. Gure ibaietan sartzearekin batera, ordea, haiek ekarritako gai-

tzak bertakoak kutsatu eta hil egiten zituen. Karramarro amerikarrak lekuz aldatuta ez ezik, arrantzaleen katuska eta erretelek ere gaitza zabaldu eta arazoa biderkatu zuten.


Gaitzaren ondorioak negargarriak izan ziren. Bertako karramarroak mendietako erreketan isolatuta gelditu ziren, aurrera ateratzeko zailtasun handiekin.

Eta karramarroa desagertzen joan ahala, desoreka latza gertatu zen bizi zen erreketan. Uretako materia organikoa igo egin zen, disolbaturiko oxigenoaren maila jaitsi, uretako landare eta animalia batzuk ugaritu, besteak urritu, eta abar. Gainera, guzti horri arrantzaren balio ekonomikoa gehi dakioko. 1978-1987 tartean adibidez, eskatu ez ziren arrantzabaimenen balio ekonomikoa Espainiar Estatuko Administrazioarentzat 2.000 milioi pezetakoa izan zela estimatu da. Bertako datuak ematearren, arrantzasasoian Gasteiztik Donostiara, 1924ean, 200 kilo karramarro eramaten ziren egunero. 1975ean, oraindik, Araban 4 milioi aletik gora harrapatu ziren, baina geroztik kopuruak ikaragarri jaitsi ziren. Sukaldean hain estimatua denez, gaur egun Euskal Komunitate Autonomoan 500.000ren bat kilo ibai-karramarro kontsumitzen da urtero, baina amerikarrak. Bertakoak, ordea, desagertzeko arriskuan daude eta ezin dira jan.

Nolanahi ere, ezin zaio bertako karramarroen desagertzea izurriteari soilik leporatu. Zalantzarik gabe, gure ekintza zuzen edo ez-zuzenek eragin latza izan dute. Honela, errekek kutsatzea, ibai-arroak aldatzea, landaredia moztea, gehiegizko arrantzak eta abarrek, gaitzak adina erru izan zezaketen espezie honen suntsipenean.

Bistakoa denez, beste askotan bezala, gizakiok eskua sartu dugunean hanka ere barruraino sartu dugu. Nolanahi ere, lehenagokoa aldatzerik ez dugu eta aurrera begiratzea komeni da. Ba al da bertako karramarroen alde zeozer egiterik?

**ZER EGIN ETA  
ZER EZ EGIN**



**Gaitz batek bertako karramarroaren populazioak suntsitu zituen. MIEL MARI ELOSEGI**

**Garai batean karramarroa bertako erreka askotan bizi zen.**

MIEL MARI ELOSEGI



Errekek Leitzan, inguruko herri askotan bezala, martxa txarra eraman dute. MIEL MARI ELOSEGI

Hasteko, zera esan behar da, ezjakintasun handia dagoela, eta honek zailago egiten duela irtenbide egokia bilatzen. Gaitza sortzen duen onddo mikroskopikoa detektatzea ikeragarri zaila da eta horretan ari diren ikerlariek soilik egin dezakete era fidagarrian. Ezinezkoa da, beraz, adituak ez direnentzat karramarroak kutsaturik dauden hala ez esatea. Hortaz, lehenengo urratsa karramarroak lekuz ez mugitzea da, adituen zuzendaritzapean ez bada behintzat. Ezta «izurriterik gabeko karramarroak» ere, inongo kontrolik gabekoak izen honekin salduak izan baitaitezke.

Gogora dezagun ikerketen arabera seinaleduen karramarroak gaitza transmititzen duela, eta hauxe dela, hain zuzen ere, Euskal Herriko hainbat lekutan askatzen ari diren espeziea. Beraz, gaitza jasateko gai den ordezkarik ekologikoa bezala «saltzen» ari zaizkigun espeziea, gure azken karramarro arruntaren kalterako faktorea da. Inporta ote du ordea gure erreketan karramarro amerikarrak edo bertakoak egotea? Ez al dira bada biak karramarroak?

Bai, hala dira. Baina gure bertako karramarroak aspaldidanik bizitu dira hemengo erreketan eta bertako sisteman ongi egokituta zeuden. Amerikarrak, aldiz, beste espezie batekoak dira, handiagoak eta agresiboagoak, eta bertako sistemak aldatu egin ditzakete eta ezagutzen ez ditugun ondorioak sortu.

Beraz, hobe dugu seinaleduen karramarroa lekuz ez mugitzea. Arazoa behar bezala ezagutzeko ikerketak egin daitezkeen eskatu behar da, eta ibai eta erreken zaintzea eta berreskuratzea bultzatu. Era bere-

ritea kontrolatzea eta gainditzea lortzen ari dira, gaitza sortzen duen onddoak ezin baitu ostalariatik kanpo bat edo bi eguneko baino gehiago bizi. Hau dela eta, onddoak kutsatu eta karramarro guztiak hil ondoren gaitza sortzen duen onddoa bera ere desagertzen da, eta bolada baten ondoren berriro ere bertako karramarroa bizi daiteke. Honetarako bete behar diren baldintzak hauek dira: bizilekua egokia izatea, eta gaitza duen karramarrorik ez egotea. Leitzan, bigarren baldintzari dagokionez behintzat, ez da hori betetzen

## **GAITZA JASATEKO GAI DEN ORDEZKARI EKOLOGIKOA BALITZ BEZALA «SALTZEN» ARI ZAIZKIGUN ESPEZIEA, GURE AZKEN**

### **KARRAMARRO ARRUNTEN KALTERAKO DA.**

an gaitzik gabeko uretan eta adituen laguntzarekin bertako karramarroa sartzen saiatu behar litzateke, bertakoak ez diren karramarro-populazioak kontrolatu, eta azkenik, administrazioari arazo hau seriozitatez ikertu eta konpontzen saia dadin eskatu.

Zorionez, Europako hainbat lekutan izu-

eta, beraz, ez da erraza izango saltsa hau epe motzean konpondu eta bertako karramarroak gure erreketara itzultzea. Dena dela, gure aldetik zeozer egin dezakegu: karramarroak lekuz ez mugitu eta errekek zaindu.

# EZTABAIDARRAKO AITZAKIA

datzi edo artikulutxo honen helburua – ez dugu gezurrik esanen-, eztabaida probokatu edo sortzea da. Badakigu ez dela gauza handirik behar bi lagun eztabaida beroan hasteko. Lantegi erraza da, beraz, gure gaurkoa. Hala ere, eztabaida horien lagungarri guk puntua jarri nahi izan dugu, hain zuzen ere gure ustez interesgarriak diren zenbait konturen inguruan.

Oso argi dugu gai hauen inguruan ez dagoela adostasunik, iritzi ezberdinak daudela. Oso ezberdinak kasu batzuetan. Izan ere, horretxek ziurtatzen du eztabaida, eta horrexegatik ekarri ditugu hona. Gure helburua ez da, jakina, inor mutur joka hastea. Eztabaida, sortuz gero, hitzetatik harago ez dadila joan. Nahikoa da nork bere pentsamendua azaldu eta agertzea, eta, gehiegi eskatzea ez bada, bestea ere aditzen saiatzea, horixe baita gai guztietan aurrera egiteko bidea.

Zenbait gai aukeratu ditugu, beren arteko loturarik gabeak, baina guztiak ere interesgarriak eta eztabaidagarriak. Guk gaia planteatu besterik ez dugu egi-

nen, ahal bada gehiegi busti gabe, nahiz eta hori ere oso erlatiboa den. Batzuen kasuan esan liteke premiazkoa dela herrian erabakiren bat hartzea; beste batzuk, berriz, ez dira hain premiazkoak (edo bai? hortxe hasten da eztabaida). Honatx aukeratutakoak:


Leitzako ezpatadantza



## NESKAK EZPATADANTZAN:

Ezpatadantza esanahi eta garrantzi handiko ikuskizuna da Leitzan. Urtero zenbat jende biltzen den ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Orain arte, behintzat, gizonezkoak izan dira beti ezpatadantzan parte hartu dutenak. Gerta liteke, ordea, egunen batean neskek ere parte hartu nahi izatea, eta dantzatu nahi izatea. Irunen eta Hondarribian, esaterako, alardean parte hartzeko eskubidea aldarrikatu dute. Hala balitz, Leitzako ezpatadantzan neskek parte hartzeko eskubidea aldarrikatuko balute, ziur asko eztabaida sortuko litzateke. Zein da zure iritzia? Eztabaidagarria al da? Edo argi dago zer egin beharko litzatekeen?

Leitzako udaletxea toki egokia al da Jesusen Bihotzaren irudia edukitzeko?



### JESUSEN BIHOTZA UDALETXEAN

Leitzar asko kristauak eta katolikoak dira. Beste asko, ordea, ez. Leitzan eliza handi bat dago, baita ermita ere, eta fededun kristaudentzat nahikoa bilgune. Bestalde, Estatua laikoa da eta ez dago erlijio ofizialik. Legez, ezin zaio inori erlijio jakin bat inposatu, eta publikoak nahiz denonak diren eraikinetan (ikastetxeak, udaletxeak, osasun etxeak...) ez da inongo erlijioaren ikurrik jarri behar. Beraz, zergatik ireki da Leitzako udaletxean Jesusen Bihotza estaltzen zuen gortina? Denona den etxean batzuen erlijio-ikurra ezarri da, nahiz eta fededun kristauek horretarako baduten bere etxe propioa (eliza). Ez da legezkoa. Bidezkoa ote da? Batzuen ustez bai, jakina, tradizioaren izenean, baina beste askoren ustez ez da bidezkoa, eta gainera inposizioa da. Eta zure ustez? Bestelako sinismenak dituztenek ere eduki beharko lukete beren ikur eta sinboloak udaletxean jartzeko eskubidea?



### ZABORRAK

Gero eta hondakin eta zabor gehiago sortzen dugu (eskonbroak, etxeko altzariak, traste handiak...). Hondakin horiek, ordea, ez ditugu gure etxean edo gure ondoan nahi, eta han edo hemen uzten ditugu. Baina ez da gauza bera «han» edo «hemen». Zaborra eta hondakinak sortzen ditugunok kontsekuente izan behar dugu eta behar den tratamendua eman, hori baina ikusten diren zerrikeriak egin gabe. Zein da, ordea, tratamendu hori? Nola konpondu behar da zaborraren arazoa? Zer egin eskonbroekin edo traste handiekin? Non utzi? Zer egin jendea kontzientziazteko eta norberaren beharretatik harago joateko?

### TENPORAK

Eguraldia modako gaia da. Inoiz baino gehiago hitz egiten da eguraldiaz, nahiz eta arrazoiak asko aldatu diren. Garai batean lanarekin lotuta zegoen (baserriko lanarekin, esaterako), baina gaur egun beste arrazoi asko daude eguraldiari begiratzeko, batez ere aisialdiari lotutakoak. Eguraldia iragarri edo asmatzeko, berriz, aditu ugari dago, sateliteak, eta abar. Horiekin batera ezaguna da tenporen sistema. Aurten behintzat ez dute asmatu, eta usainik ere ez diote hartu etorri den udazkenari, adibidez. Hala ere, jende askok begiratzen dio tenporek esaten dutenari, eta badira horretan sinesten dutenak. Ba ote du zentzurik tenporen sistemak? Balio ote du? Besteak bezain fidagarria al da? Gehiago? Gutxiago? Horratz zenbait galdera zeure buruari egiteko eta ondokorekin eztabaidatzeko.

# Unai Zabaleta

Karrape Irratiko esataria

«Ahal dugun guztia ematen saiatzen gara»



**U**nai Zabaleta oso ezaguna da Leitzan. Karrape Irratiko esataria da, baina horretaz gain herriko eguneroko bizitzan oso sartua ibiltzen da, eta hainbat saltsatan ikusi dugu: musika, kultura, komunikabideak, zinea, antzerkia, jaialdiak... Bistan da, horrela errazagoa gertatu zaigu galderak asmatzea, baina, bestalde, kontatzeko hainbeste gauza izanda elkarrizketa laburtzeko lanak ere izan ditugu. Tira, besterik gabe, elkarrizketa hau bitarteko, Unai pixka bat gehixeko ezagutu dezagun.

■ **Gehienetan lanean jendaurrean aritu zarenez, zure lanbideen berri badugu denok. Baina ikasketei dagokienez, zertan aritu zara?**

FP-2 egin dut nik, administraritzako bost urteak, Leitzan; ederki kostata, baina dena bukatu nuen. Gogoan dut ikaragarri gustuko nuela, arrazoi batengatik: administraritzan nik beti lotzen nuen ordenagailuekin, idazteko makinak, saltsa..., eta hori oso gustuko nuen. Baina gogoan dut bigarren urterako jada ederki nazkatu nintzela, ez nuela deus jakin nahi. Hala ere, nolabait, bost urteak egin nituen. Oso ikasle txarra izan naiz beti, nik hori onartzen dut. Aurrerago magisteritza musikalean ere hasi nintzen, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Aurreneko ebaluaketan gainera, ez nuen bakar bat ere suspenditu... ezta aprobatu ere. Ez nintzen aurkeztu: irratikoa neukan, Incansables txaranga sartu nintzen... eta esan nuen «dudik

- **Irratia edo telebista?** telebista gutxi ezagutu arren, biak ditut gustuko.
- **Irakurtzea edo telebista ikustea?** telebista ikustea; ez daukat zaletasunik irakurtzeko, zoritxarrez.
- **Musika entzutea edo jotzea?** entzutea oso gustuko dut, baina jotzea plazer bat da.
- **Musika mota bat?** asko ditut gustuko: klasikoa, saltsa... bakallua ez zait bate-re gustatzen
- **Instrumentu bat?** ezin dut aukeratu. Asko ditut gustuko.
- **Herri bateko pestak, parranda egiteko?** Leitza-koak
- **Herri bateko pestak, txarangarekin jotzeko?** Leitza, Hernani, Tolosa... Badi-ra zenbait herri oso txarangeroak, oso onak direnak jotzeko
- **Nori eginen zenioke elkarrizketa?** inoiz egiterik izanen ez dudan bateren bati.
- **Nori ez zenioke elkarrizketarik eginen?** hitz gutxi-koa den pertsona bati
- **Telebistako esatari bat?** Andoni Aizpuru
- **Irratiko esatari bat?** Arantxa Iturbe
- **Musika talde bat?** Itoitz
- **Lanbide bat?** esatari
- **Kantatzeko toki bereziren bat?** tokirik onena, akustikagatik, eliza da.
- **Leitza:** bizitzeko nahi dudana herria
- **Euskara:** gure hizkuntza, euskaldun egiten gaituena
- **Euskal Herria:** Nafarroa Garaia eta Beherea, Gipuzkoa, Bizkaia, Zuberoa, Araba eta Lapurdi

gabe, ikastea ez da nirea, eta bestea bai». Eta lanean hasia aukeratu nuen, ikasketak utzita. Jende mordoska ezagutu nuen eta oso gustura; esperientzia berezia izan zen, baina hor ohartu nintzen hori, liburu artekoa, ez zela niretzat.

■ **Lanbide askotan ikusi zaitugu, ezberdinak oso: kamarero, musiko, denda bateko saltzaile, irratiko esatari, telebistako aurkezle... Horietatik guztietatik, zein da gehien bete zaituena?**

Dudik gabe, irratiko esatari. Eta musiko izatearena ere bai. Bueno, nik beti esaten dut: «ni ez naiz musikoa». Nik solfeo-ko 4. maila eta hiru urte flauta besterik ez dut egin. Musikoa da tituluak dituenena. Niri gustatzen zait instrumentuekin saltsetzea.

Beste lanbideak esperientziak izan dira: dendako saltzailearena ikaragarria izan zen; kamarero, betidanik etxean ezagutu dut taberna... Baina irratiko esatari izateak asko bete nau, oso polita da, ikaragarri gustatzen zait, eta oso esker oneko lana dela iruditzen zait.

■ **Etorkizunari, berriz, nondik begiratzen diozu?**

Niri gustatuko litzaidake irratia mundu honetan segitzea, dudik gabe, esatari lanetan aritzea, nahiz eta ez izan oso erraza. Ez dut askotan pentsatzen etorkizunean zer egin behar dudana. Orain hemen nago, gustura nago, eta hemen segitzeko asmoa dut. Gero zer etorriko den, ez dakit. Musika kontuan, berriz, txarangarekin, oso ar-

gi daukat, irratian ez bezala, ez dela betirako. Asko jotzen dugu, ikaragarri ari gara udan, eta horrek ere nekatzen du, aspertzten du, nahiz eta musika eta instrumentuak jotzea oso-oso gustuko izan. Zenbait urte iraunen dut, eta oso pozik, baina ez da betirako.

■ **Herrian bertan hainbat kultur proiektutan parte hartu duzu, esate baterako antzerki emanaldiak (Pello Indiano...), pelikulak (40 ordu, Nik izan nahi dut...). Zalantzarik gabe, lan handia eskatu dizute, baina herritarren erantzuna ere gehienetan edo beti oso ona izan da. Ahaleginak merezi du? Zer aportatu dizute horiek guztiek?**

Dudik gabe, merezi du ahaleginak. Oso esperientzia politak izan dira, oso intentsuak ere bai. «Pello Indiano», «40 ordu», horrelakoak direnean, zinea bete izan da. Leitzako jendeak jendaurrean egiten dituen gauzek nahikoa arrakasta izaten dute, normalean. Zinean egiten ditugun ekitaldiek, Saharako jaialdiek, adibidez, oso harrera ona izaten dute, eta horrek badu bere esker ona. Jendeari gustatu bazaio, zuregana etortzen dira, zoriontzera, eskerrak ematera... eta beti esaten duzu: merezi du. Askotan, hala ere, lan asko ematen dute, eta Luzek dioen bezala, gehiago nekatzen zaitu jendearen atzetik ibiltzeak, 40 ordu grabatzeak ematen duen lanak baino. Eta zer aportatzen didan horrek guztiak? Ba, terreno horretan mugitzea. Momentuak dira. Eta,



Karrape Irratian.

nahiz eta herri berean bizi, jende askorekin ez duzu erlaziorik, eta horrelako gauzek ematen dizute aukera jendea gehiago ezagutzeko. Eta grabatzeko momentuak, entsaiatzeko momentuak, askotan oso oso politak izan dira. Eta lehertu gara parrrez, eta ikaragarri ongi pasatu dugu. Gainera, poliki-poliki ikasten dituzun gauzak dira: kamerari beldur handirik ez izaten, nahiz eta askotan ez nabaritu kamera-aren aurrean...

**■ Zer ematen dio kultur jarduerak (musika, kultur ekintzak, jaialdiak, pestak, hitzaldiak, kantaldiak, hitzaldiak, antzerki emanaldiak...) Leitza bezalako herri bati? Zein da kultur dinamika horren garrantzia?**

Dena, nire ustez dena ematen dio. Kultura oso garrantzitsua da herri baten-tzat, herri bat osatzeko orduan, eta nire ustez Leitza horretan ikaragarriko suertea dauka. Lan egiten duen jendea dago, jende gutxi, baina ikaragarriko lana egiten duena. Herriaren alde, kulturaren alde: musika, kultur ekintzak, hitzaldiak, pestak, kantaldiak, antzerkiak... ikaragarriko pilak izaten dira. Akaso jendeak ez du ikusiko, baina hala da, eta jende gutxi da lan asko egiten duena, eta horiek miresteoak dira, eta bizitasun ikaragarria ematen diote herriari.

**■ Zure musikazaletasuna ere ez da, noski, sekretua. Hamaika musika tresna jotzen ikusi zaitugu. Anaia ere musikoa duzu. Nondik heldu zaizu zaletasuna? Nola elikatu duzu?**

Ez dakit. Amak, aitak eta, zenbaitetan esan didate: «zure aitonak ez dakit zer, akordeona, edo oso abeslari ona zen...», eta Aitorrek eta biok beti esan dugu asko lagundu digula belarriak, entzumenak. Amak belarri ona dauka. Hortik ote da? Eta nola elikatu? Niri asko gustatu zait, beti, fijaszea: pertsona bat ikusten badut saxofona jotzen, ohartzea nola jotzen duen, behatzak nola jartzen dituen, eta zenbait gauza horrela ikasi ditut. Eta, dudik gabe, katxarroa hartu eta saltseatzea.

**■ Zein da zure ibilbidea musikaren munduan?**

Artadin hasi nintzen, handik Iraunko-



Egin Eguna, Urdinainen.

«Nik beti esaten dut hitz egiten dudala irratiaren beste aldean egon nahi duten guztientzat»

rrak Tolosako txarangara joan nintzen, handik Incansablesera egin nuen salto eta orain han jarraitzen dut. Behin, folk talde bat ere egin genuen, hemen Leitza, Txaragorri zuen izena. Herriko koadrila bat ginen eta ikaragarri ongi pasatu genuen. Ezkontza talde batean ere jo izan dut baxua. Oso kurioa zen: ezkontza batera joan, jo, kobratu eta etxera. Baina gehienbat txaranga munduan ibili naiz, eta

oraindik ere hor jarraitzen dut.

**■ Musikazaletasuna oso zabala bada ere, gazteen artean joera jakin batzuk dira indartsuenak, eta, parrandarako batez ere, tabernazuloa eta musika mota jakin batzuk nagusitu dira. Horren aurrean, txarangek eta gisakoek nolako etorkizuna dute?**

Nire ustez txarangek, oraingoz beti ere, etorkizun ona dute, aktuazio aldetik. Zergatik? Badira zenbait herri oso txarangoak direnak, baina ehuneko handi batean, orokorrean, udalak nahi izaten duena da pestetan zerbait edukitzea kalean gora eta behera, eta kalean txaranga ibiltzen dira. Horregatik, txaranga ez dauka oraingoz inongo arriskurik lan gutxi izateko, eta horren adibide da udan gu gelditu gabe ibiltzen garela. Beste kontu bat da plazako taldeena: egoera oso-oso txarrean daude, nire ustez. Jendea tabernatan egoten da, plazara ez da apenas inor agertzen, eta orain ikaragarri sartu dena musika diskoa da, dj-ak plazan...;





horrek taldeei ikaragarri kendu die, asko, Leitza ikustea besterik ez dago. Baina alde horretatik txarangak ez dut uste arazorik dutenik. Hala ere, denetarako denbora bada: txarangarako, tabernarako eta plazarako, nahi izanez gero.

■ **Txarangarekin pestaz pesta ibiltzeak nolako sentazioak eragiten ditu? Nekea, alaitasuna, asperdura, interesa, emozioa, lan bat besterik ez da... Gogorra al da? Edo beti parranda betean ibiltzen zarete?**

Guretzat txarangaren kontua iritsi da lanbide izatera. Gu lanera goaz, ahal dugun hobekien egiten dugu, eta etxera. Hala da. Gero momentuak badira, lan guztietan bezala, oso onak, beste asko ez hain onak. Gure lana kanpoan, jendearekin eta pestetan denez, saiatzen gara beste umore batekin egoten, nahiz eta ez den batere erreza... eta ongi pasatzeko aukera asko hartzen ditugu. Jende askok uste du txaranga dela beti pestaz pesta, parrandaz

parranda, lorez lore ibiltzea... Gure kasuan, guri ere ateratzea gustatzen zaigu, baina azkenean ez duzu agoantatzen. Egutero-egutero jotzen ari zara, nekatzten zara, eta gorputzak ez du agoantatzen.

■ **Leitzako Karrape irratan ere ibilbide luzea egin duzu. Leitzako irratiak, Karrapek, zer eman dizu?**

Kar, kar, kar. Saltsa asko eman ditu. Jende mordoxka ezagutzeko aukera ematen dizu, irratiak gozatzeko aukerak ere eman dizkit... Nabaritu dut oso jende ezberdinarekin harreman hobea izan dudala, jendeak hobeki hartzen zaituela. Hori gertatu egin zait irratiarekin, entzuleekin.

■ **Eta Leitzako irratiak, sortu zenetik aurten 10 urte egin dituen irratiak, zer eman die herritarrei?**

Hori beraiek erantzun beharko dute. Auskalo. Nik pentsatzen dut askorentzat konpainia ona izan daitekeela, horretan saiatzen gara. Horren adibide, irratiaren denean askok eta askok deitzen dutela ea zer gertatzen den irratiarekin, itxita da-

zenbait komertziotan ere aditzen da, eta gazte batzuek tarteka ere ohartzen zara entzuten dutela, esaten dizutelako, baina gehienbat, ordutegi hori dela eta, entzule nahiko konkretua da. Nik beti esaten dut hitz egiten dudala beste aldean egon nahi duten guztientzat

■ **Irrati lanetan aspaldi ezagutzen zaitugu, baina telebistan ikustea gauza berria izan da. Zuzeneko emanaldia, lehendabiziko aldia... Nolako izan zen esperientzia hori?**

Oso esperientzia ona izan da. Ikaragarria. Oso desberdina da. Irratian urte mordoxka badaramazkit eta ez du deus ikustekorik: jende gehiago dago, kamerak, pinganilloan zuzendaria duzu mila gauza esaten, bitartean gidoia duzu... Beste mundu bat da, oso polita da, jende oso jatorra ezagutu dut, eta oso gustura aritu naiz. Hasieran motza egin zait, bost egun, gero beti gogoarekin gelditzen zara. Programa ere oso berezia zen, oso arina, pestak ziren eta fifiri-fafara, alegia, ez dela programa bat, serioagoa... Eta horrek ere asko egiten du, nik uste. Lehenengo aldian izateko gustura aritu naiz. Gustatuko litzaidake, egia esan, aurretik prestatu izan balira gauza asko, beraiekin elkartu... Izan zen, joan eta eseri eta hasi. Lehenengo aldian izan eta... buff...

■ **Urduri?**

Ez nengoen urduri. Eta horren adibide, entsaio bat egin genuen Estitxuk eta biok, eta ikaragarri ongi atera zen, zuzeneko baina askoz hobeki, alde handiz. Aurreneko eguneko zuzeneko ez zen batere ona izan. Zergatik? Eseri ginen eta erregidorea jada bost-lau-hiru esaten ari zen bitartean, zuzendaria esaten ari ziztaigun «aizue, hau ez dugu, hau ez dakit zer...», eta gidoia aldatu zen goitik behera eta blokeatuta gelditu nintzen, Estitxuri galdezka, «eta, orduan, nola hasi behar dugu?». Nire aurreneko aldian... Eta horrek bai pixka bat blokeatu ninduela, baina gero, nik uste, egunak pasa ahala gehiago ireki nintzela eta azkeneko egunean ikaragarri ongi pasa nuen, penaz ere bukatzen zelako. Oso esperientzia polita izan da.

«Nik beti euskaraz lan egin dut eta euskaraz lan egiten jarraituko dut, hala egin nahi nuke beti ere»

goela, nabari dela, irrati guztiekin bezala. Gu, behintzat, saiatzen gara ahal dugun guztia ematen.

■ **Irratian ari zarenean, zein da buruan edo gogoan duzun entzule ideala? Norentzat hitz egiten duzu?**

Ez dut imajinatzen entzulerik. Gure ordutegia dela medio, badakigu zer entzule dagoen: gehienbat emakumezkoa eta etxean lanean ari den jende hori; gero,



40 ordu filmaren grabaketa.

■ **Bai irratian, baita telebistan ere, hizkuntza izan da zure lan tresna, komunikazioa baita ardatza. Eus-kara, zure kasuan. Horrek hizkuntzarekiko sentimenduan eragin al dizu, alde batera edo bestera?**

Nik beti euskaraz lan egin dut eta euskaraz lan egiten jarraituko dut, hala nahi nuke beti ere. Orain arte ez dut inongo arazorik eduki. Nik erdaraz hitz egin behar dudanean hitz egiten dut, baditut lagunak eta ezagunak euskaraz ez dakitenak, eta ikaragarriko hanka sartzeak egiten ditut, mundialak. Ez zait inporta. Baina lanerako orduan, lan bat topatuko banu, erdaraz egin beharrekoa, jendearen aurrean, segur aski ere ezezkoa emanen nioke, nire burua ez dudalako gai ikusten horrelako egoera batean erdaraz aritzeko; eta gainera nik euskaraz lan egin nahi dudalako, besterik gabe.

■ **Hizketa molde bera erabili al duzu irratian nahiz telebistan? Ezberdin jokatu al duzu? Nola moldatu zara?**

Batek baino gehiagok galdetu dit ea behartu nauten batuaz egitera edo ez, edo modu honetan aritzera edo ez. Ez naute behartu deustara eta Estitxu ere ez, gainera oso programa arina da, esan bezala. Dudik gabe, ez ditut erabili zenbait hitz oso hemengoak direnak eta ulertuko ez direnak, baina Leitzako hitzak sartzen

nituen eta Estitxuk ere Lesakakok sartzen ditu, mordoxka gainera.

■ **Anekdotaren bat, irratian gertatua.**

Arratsaldea zen eta ez ginen emititzen ari. Eta nik lagun bati deitu nion, telefonoz, etxera. Lagun horren senarra eta aita kanpoan zeuden autoan, irratia edo zerbait ongi jartzen, eta bat-batean non esaten didan lagun horrek bere senarra eta aita, kanpoan zeudenak, gure konbertsazioa irratian entzuten ari zirela. Oso kurioa izan zen. Nik esaten nion ez ginela emititzen ari, arratsaldea zela, telefonoz ari nintzela, baina...

■ **Anekdotaren bat, txarangarekin gertatua**

Txarangarekin bitxikeriak mila, onak eta txarrak. Bat kontatuko dut, nahiz eta ni oraindik ez nengoen txarangan. Leitzan batek baino gehiagok badaki. Behin, Incansables etortzen hasi zirenean, aspal-di, hemen ikaragarri jotzen zen. Bost etortzen ziren eta egun osoa jotzen, eta azkenean ezpainek ez dizute erantzuten, eta nekatzen zara. Eta behin, Sietemesinori bateren batek esan zion «benga, jo zazue...». Azkenean hartu omen zuen tronpeta, nazkatuta, Sietemesinok, eta bota egin omen zuen, baina harrika, eta tronpeta gelditu zen doblatuta. «Jotzea nahi baduzue, ekarri» esan zuen. Tronpeta txikituta, ekarri zuten eta «honekin

ezin da jo». Bada, tronpeta hartu omen zuten, eta, oker ez banago, Gaztelu iturgintzakoak, bere tailerrera eraman, dena moldatu, eta tronpeta eman zion berriz Sietemesinori. Berak askotan kontatu du.

■ **Anekdotaren bat, tabernan gertatua**

Tabernan bitxikeriarik ez dut gogoan. Tabernan, bitxia dena da goizeko 3etan edo 5etan jendea ikustea, zer egiten duen, nola egoten den, zer gauzak esaten dituen.

■ **Anekdotaren bat, telebistan gertatua**

Telebistan oso bitxia izan zen nire aurreneko programa, bloke-

atu nintzen momentua, eta bat-batean atzera begiratu eta kristoren suteak ikustea. Su artifizialak ziren, eta nonbait su artifizialen txinpartaren bat edo suren bat erori zen eta gure atzealdeak su hartu zuen, baina nola su hartu gainera. Ikaragarria. Eta zuzendaria pinganillotik «benga, azaldu sua badela atzean...»

■ **Anekdotaren bat, dendan gertatua**

Dendakoa oso ona da. Ni dendan ko-bratzen aritu nintzen, fruterian, txarkuterian, gauzak jartzen eta denetik. Baina detektibearena egiten ere aritu nintzen. Bada gaitz bat, nola da? Kleptomania? Hemen bada jendea hori duena, bestela ez du zentzurik. Ni ibili izan naiz zenbait emakumeren atzetik, bijilatzen, jakin banekielako zerbait hartu behar zutela. Eta gogorra da, baina batzuetan grazioso ere iruditu zitzaidan. Gero gogorra egiten zaizu esatea. Eta gainera askotan tontakeriak dira: pasta bat, 5 pezetako gauzak... Eta ailegatu naiz ni komuneko ateko zirriritutik zeletan aritzera bateren bat harrapatzeko.

Eta abar, eta abar. Luze jarrai genezake, Unai iturri oparora delako, baina ohi bezala espazioak mugatzen gaitu. Ez da gordeka ibiltzen den mutila, beraz, inork gehixeago jakin nahi baldin badu, ez du oso urrutira joan beharko.

Harrigarria da txikitan denok (edo gehienok) izaten dugun on eta aingerutxo aurpegia. Sekula deus txarrik egin ez dugula ematen du, ezta? Urteekin, ordea, itxura aldatuz joaten da eta malizairen aztarnak ere agertzen hasten dira. Baina polita da, nolnahi ere, garai batean nolakoak ginen ikustea, eta aldea ikustea.

Horretarako, jakina, argazkian agertzen direnak nor diren asmatu egin behar da. Ez zaigu iruditzen lan zailegia jarri dugunik. Hain aspaldikoak ere ez dira argazkiak eta, batzuetan behintzat, 100 urte pasata ere esanen genuke aisa ezagutuko genituzkeela.

Tira, ea lan handiegirik gabe aurpegiok ezagutzen dituzuen.

## Pertsonai ezkutua



Pistak behar dituzula? Zertarako? Arreta pixka bat jartzea besterik ez da behar. Pertsona gaztea da. Hori gutxienez aurreratuko dizugu. Neska edo mutila izan daiteke. Hori ere, zure lagungarri. Argazkia manipulata dago. Badaezpada esaten dizugu, agian ez zarelako ohartu. Ez da inoiz Marmari aldizkariko atal honetan atera.

Gehiago? Ez, noski. Hainbesteko laguntza emanda ez baduzu asmatu, alferrik ari zara, ez duzu asmatuko-eta. Laguntza eskatu ondokoari eta aitortu ezazu zu baino trebeagoa dela.

## Ezetz asmatu



# LEITZAKO

## HAUR ESKOLA


### FITXA

- **Langileak:** Karmele Lazkano, Maite Barriola eta Maxux Sukuntza.
- **Noiz sortua:** 1988ko azaroak 25
- **Egoitza:** Amazabal z/g (liburutegiaren eraikin berean)
- **Haur kopurua:** 29
- **Haurren adina:** 14 hilabete eta 3 urte bitartekoak
- **Zerbitzuaren izaera:** udalak kudeatzen du
- **Finantziazioa:** % 42 Nafarroako Gobernuako Ongizate Departamentuak, % 25 Leitzako Udalak eta % 33 gurasoek.
- **Ordutegia:** 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.
- **Kuotak:** errenta aitorenaren arabera aldatzen bada ere, batak eta besteak ordaindu behar dutenaren artean ez da ia alderik (kasuren batean izan ezik).

■ **Berriki handitu da Leitzako haur-eskolako langile taldea; ikusten denez, jendeak gero eta gehiago erabili nahi du zerbitzu hau. Zergatik? Zein da betetzen duen hutsunea?**

Gure ustez, haurren garapenean oso garrantzitsuak dira lehendabiziko urte hauetan finkatzen diren gaitasunak:

- norberaren autonomiaren lorpenak.
- nortasunaren norberaganatzea.
- haurrak bizi behar duen inguru fisiko, natural eta sozialaren ezaugarriekin bizi-penak izatea eta harreman positiboa sortzea.





- bere kideekin afektibitate loturak sortzen eta lantzen joatea.

- bere pentsamendu, sentimendu eta nahiak adierazteko bideak sortzen eta irekitzen ikastea

Haur-eskolan, mugarik gabe, gaitasun guztiak hobetzen joateko aukera dute, eta haurrak ikasten du aurkitzen dituen zailtasunak gainditzen.

■ **Zein dira haurrak haur-eskolan sartzeko baldintzak?**

Maiatzean matrikulazio epea errespetatzea, eta, bestalde, ikasturte horretako irailean edo urtarrilean haurrak 14 hilabete beteak izatea; oinez hasi bada, hobe. Taldeak osatzeko unean, 28 hurrekin zerrenda osatu arte, zaharrenetik hasten gara, eskolara bideratu behar dutenek urte bateko aukera izan dezaten haur-eskolan egokitzeko.

Zerbitzua eskaera guztiei eman nahi bazaie ere, beti gertatu ohi da hiruzpalau haur kanpoan geratzea. Hala eta guztiz ere, orain badugu aukera taldetxoak osatzen diren heinean irakasle gehiago gehitzen joateko.

■ **Betetzen al ditu Leitzako haur-eskolak herriak, bertako gurasoek, dituzten beharrak?**

Gure ustez, lana dela eta, zenbait guraso beste pertsona baten laguntzaz baliatzen da bazkaltzeko garaian. Datoren urtetan zerbitzua egokitzen jarraitu

«Haur-eskolan,  
mugarik gabe, gaitasun  
guztiak hobetzen  
joateko aukera dute,  
eta haurrak ikasten du  
aurkitzen dituen  
zailtasunak gainditzen»

beharko dugu agian -irakasle kopurua, haur kopurua, ordutegia (?), jangela-, azken hiru urte hauetan jaiotze kopuruak gora egin du eta.

■ **Oso ezaguna da, besteak beste urtero telebistan ateratzen delako, haur-eskolako lehendabiziko eguneko irudia: haurra negarrez, gurasoengandik ezin banatuz. Nolakoa izaten da egun hori? Hain traumatikoa al da edo topiko hutsa da?**

Egun, ikasturtearen hasierako lehen hilabetean, haurren egokitasunean



murgiltzen gara. Lehendabiziko egunetan haur bakoitzaren obserbazioan oinarritzen gara. Kontaktu zuzena edukitzen dugu haur bakoitzarekin eta beraiek jabetzen joaten dira nor izanen duten bere hezitzailea.

Une gogor honetan haren tristuraz jabetzen zarela sentitu behar du, maite duzula eta behar zaituen bakoitzean hor zaudela prest. Egunak pasa ahala benetan maite duzu eta haurra aske sentitzen da. Gai da inguruan dituenekin jostatzen hasteko, eta txikiaren kasuan jostailu batzuek gozaten hasten dira.

Denok bere espazio txikia errespetatzen badugu, askoz hobeki sentitzen doa eta bere benetako nortasuna azaltzen hasten da. Prest dago duen guztia emateko; batez ere, maitasuna. Ikastaldi horretan ordutegia berezia izaten da, poliki-poliki egokitzeke.

Gune berri honetan ez badu benetan babesik eta maitasunik aurkitzen, traumatikoa izan daiteke. Bestela ez!



## «Haurrak, ikasteko, berarekin bidea eginen duen norbait nahi du»



### ■ Eta gurasoek nola bizi dute?

Gurasoek era ezberdinean bizitzen dute lehen haurraren kasuan edo bigarrenaren kasuan. Lehen seme-alaba bada, gure ustez pentsatuko dute ia haur guztiak ikusteko gai izanen garen (hainbeste haur batean ikusten dituztenez); eta, baita ere, haurrak dituen oinarrizko behar guztiak asetzeko gai izanen garen, eta abar.

### ■ Eta ikasturtean zehar hurrekin eguneroko harremana eta «negoziazioa» nolakoa izaten da?

Egunerokotasuneko jarduerak buru-

tzerakoan, gure eginbeharra haurraren oinarrizko beharrak asetzea da (elikadura, higiena, jarduerak, atsedena...). Guzti hau egiten dugun bitartean, beren hezitze prozesua aurrera eramatea da gure gakoa.

Haurrak, ikasteko, berarekin bidea eginen duen norbait nahi du: negar egiteko, barre egiteko, margotzeko, dantza egiteko, jostatzeko, ipuinak irakurtzeko, ohiturak ikasteko, besteak errespetatzen ikasteko, psikomotrizitatearen bidez kontzeptuak bizi ahal izateko eta bereganatzeko...

Haurra gai da eta beti prest dago taldean sortzen den harremana sendotzen joateko. Beraiek erakusten digute eguneroko.

### ■ Nola konpontzen dira gatazkak?

Batzuetan, jostailuen jabetza dela-eta, zenbait arazo sortzen da. Hemen jabetza denona da eta itxoitzen edo konpartitzen saiatu behar da. Poliki-poliki ikasten doa.

Gure ustez garrantzitsuena hau da: gatazkek eta bizipen mota guztiek haurra heldutasun kate mugagabeen sartzen eta mantentzen dute, eta psikologikoki, bere garapenean, estadioz-estadio bide intergarri bat egiten ari da.

■ **Haur-eskolako haurren artean adin ezberdintasuna ez da oso handia: hilabetetako kontua da askotan, urte betekoa, bi urte akaso. Baina adin horretan, jakina,**



### asko nabaritzen da. Horrek zailtasunik sortzen al dizue?

Nahiz eta hilabete gutxi batzuen aldea izan, guztiz desberdina da eta guk egokitu behar dugu taldearen ezaugarri psikologikoen arabera.

Lehen taldeko haurrak urte bat eta bi urte bitartekoak dira. Aldi berezi batean daude: zentzu guztiak, kuriositatea, manipulazioa... dira beren tresnak eta gehienetan keinuz soilik baliatzen dira zerbait adierazteko. Bere ingurutik datorkion informazio guztia identifikatzen, diskriminatzen eta bereganatzen laguntzeko unea da: pertsonak, gauzak, animaliak, landareak, ekintzak... Hitz bakarreko esalditxoak azaltzen doaz.

«Gelan, estimulu eta motibazio handiena haurrak berak dira. Elkarren arteko harremanak errazten die beren garapen orokorra: afektiboa, motorea, intelektuala, psikologikoa. Askok ahalegintzen dira»

Gure artean komunikazio sistema bat sortzen dugu. Bakoitzarekin burutzen ditugun ekintzak eta ditugun nahiak garbi adierazten dizkiegu eta ematen dizkiegun kontsignak beti argiak izan behar dira.

Egunero gogoratuko gara, bakoitzak dituen berezitasunak kontuan izanik, zein komunikazio mantentzen dugun biok eta nola landu; aldi berean, gela oso-rako orokorrean ematen ditugun kontsignak ulertzeko gaitasuna sartzen diogu. Oso berezia eta interesgarria da.

Bigarren taldeko haurrak jadanik aldi sinboliko batean daude. Askok helduagoak dira, erreferentzia asko dituzte eta arlo guztietan trebatzen dihardute. Lehen etapa horretan adierazpide askok jabetu dira: beren ama hizkuntzaz, gorputz adierazpenaz, musikaz, plastikaz, eta zenbait kontzeptu matematiko bereganatu dituzte...

■ **Zer onura ekartzen dio haurri haur-eskolara egunero joateak? Eman zenbait arrazoi haurra txiki-txikitatik haur-eskolara eramateko.**

Garrantzitsuena giro ona sortzea da eta lan horretan egunero ahalegindu behar dugu. Gelan, estimulu eta motibazio handiena haurrak berak dira. Elkarren arteko harremanak errazten die beren garapen orokorra: afektiboa, motorea, intelektuala, psikologikoa. Askok ahalegintzen dira.

■ **Haurrekin sortzen den harremana moztean, haur-eskola uzten dutenean alegia, zein izaten da zuen sententzia edo sentimendua: tristura, lasaitasuna, satisfazioa...?**

Alde batetik tristura handia sentitzen duzu haiekin jarraitzeko gogo duzula. Agian hori da alde gogorra. Baina txipa aldatu eta berriro hasi behar duzu datozenei laguntzen. Datozenekin ere bi-zipen berberak, sentimendu berberak sortzen dira.

Era berean, satisfazio handia sentitzen duzu emaitzak hor daudelako, eta denei opa diegu datozkien ikasturteetan ezagupen aberasgarriak eta positiboak izan ditzatela.



# Leitzako

# bizitza soziala

**H**orrelako tituluarekin agian bakarren batek pentsatu du Leitzako kronika arroxa egin dugula. Ezta pentsatu ere. Ez dugu horrelako asmorik, eta bizitza soziala esaten dugunean beste zerbaite esan nahi dugu. Jarraian ikusiko duzu zer den.

Leitzan talde, elkarte eta erakunde ugari dago. Era guztietakoak, eta oso arlo ezberdinetan ari direnak: kirola, kultura, politika, sindikalgintza, aisialdia... Horiek guztiek, egiten duten lanaren bitartez, herriari bizitasuna ematen diote eta herritarren arteko harremanak aberastu eta bizitzen dituzte. Horien guztien bitartez antolatzen eta gauzatzen da Leitzako bizitza soziala.

Guk hemen aurkeztuko dugun zerrendan, ustez, herriko eragile guztiak daude. Gerta liteke bateren bat ez agertzea, baina ez noski gure borondatez. Hala bada, eta inor ohartzuz gero, eskertuko genuke jakinaraztea zerrenda osatu ahal izateko.

Eta zertarako argitaratzen dugun zerrenda hau? Bada, garrantzitsua eta interesgarria iruditzen zaigulako herrian zer dugun jakitea, herriko bizitza soziala nola gorpuzten den jakitea. Horretaz gain, jakina, herriko lantegi, denda,

enpresa eta establezimenduak ditugu. Hor ere bizitza soziala egiten da, eta baita lagunartean eta familian ere. Baina hori beste baterako utziko dugu. Horiek alde batera utzita, jarraian aurkeztuko ditugun eragile hauen guztien inguruan egiten da Leitzako bizitza, hauen inguruan antolatzen dira, neurri handi batean, leitzarron arteko harremanak.

Honatz zerrenda, sektoreka banatuta:

## EUSKARA, KULTURA, MUSIKA

1. EUSKALTEGIA
2. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
3. MARMARI
4. EUSKARA BATZORDEA

5. KULTUR TALDEA
6. ASKETA ABESBATZA
7. JEIKI ABESBATZA.
8. ZINE TALDEA.
9. DANTZA TALDEA
10. TXISTULARIAK
11. GAITEROAK
12. ROCK TALDEAK
13. TXALAPARTA TALDEA
14. ANTZERKI TALDEA

## HEZKUNTZA, GAZTEAK, HEZIKETA

15. INSTITUTOKO GURASO ELKARTEA
16. ESKOLAKO GURASO ELKARTEA
17. IKASLE ABERTZALEAK





18. ESKOLA-KONTSEILUA
19. EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA
20. OKILE
21. LEITZAKO GAZTEOK
22. ERLETA ESKOLA
23. AMAZABAL INSTITUTUA
24. HAUR ESKOLA

#### KIROLA


---

25. MENDIBIL MENDI TALDEA
26. PILOTA ESKOLA
27. FUTBOL TALDEA
28. EHIZTARIEN ELKARTEA.
29. TXARAGORRI PEÑA

#### ELKARTEAK

---

30. AURRERA
31. ORAIN
32. MENDI GORRIA
33. KORNIETA
34. GURATZ MENDI
35. TORREA
36. ETXETXURIA
37. LARREA



38. LIÑU-PUTZU EHOZIRI LAN ZALEEN ELKARTEA
39. IZAR-BERRI
40. JUBILATUEN ELKARTEA
41. ARKUPEAK

#### TALDE POLITIKO ETA SINDIKALAK

---

42. LARRAIN
43. UPN
44. ARALAR
45. EA
46. BATASUNA
47. ASKATASUNA
48. EHNE
49. LAB
50. ELA
51. UAGN

#### INSTITUZIOAK, ZERBITZUAK, ELKARTASUNA, ELIZA...

---

52. KARRAPE IRRATIA
53. EUSKARA ZERBITZUA
54. MUSIKA ESKOLA
55. GIZARTE ZERBITZUA
56. CEDERNA-GARALUR
57. UDALA

58. SUHILTZAILEAK.
59. OSASUN-KONTSEILUA
60. OSASUN ETXEA
61. LIBURUTEGIA
62. NEKAZAL GANBARA
63. MENDIZAIN ZERBITZUA
64. SAHARAR HERRIAREKIN ELKARTASUNA
65. CARITAS
66. FAMILIAKO GURASOEN KRIS-TAU BILTZARRA
67. ELIZAKO KONTSEILU PASTORALA



## ZURE HERRIA EZAGUTZEN AL DUZU?

**B**adakizue aldizkari honetan gustuko dugula zuen jakin-duria neurtzea, ezta? **MARMARI** aldizkarian ohikoa da test moduko ariketa, eta oraingo honetan ere ez da falta. Zenbait galdera prestatu ditugu, erraz samarrak ziur asko. Helburua? Zuek pixka bat estutzea eta zenbait jakingarri ezagutaraztea. Hori besterik ez. Tira, hemen-txe duzue ariketa.

1.- Marmari aldizkariaren zenbat zenbaki argitaratzen dira urte osoan zehar?

- A) Bat
- B) Bi
- C) Hiru
- D) Lau

2.- 2002 urtean zenbat biztanle zituen Leitzak?

- A) 3.226
- B) 3.198
- C) 3.078
- D) 2.935

3.- Noizko da Leitz aipatzen duen lehendabiziko agiri historikoa?

- A) 778 urtekoa
- B) 1023 urtekoa
- C) 1333 urteko
- D) 1512 urtekoa

4.- Zein da Torrearen eta Petrorena artean dagoen etxea?

- A) Kortearen
- B) Aspainen
- C) Txubien
- D) Martxenearen

5.- Zein da Leitz eta Iruñearen arteko distantzia?

- A) 40 km inguru
- B) 50 km inguru
- C) 60 km inguru
- D) 70 km inguru

6.- Zein da Leitzako Udalaren helbidea?

- A) San Miguel, 1
- B) Elgoien, 1
- C) Elbarren, 1
- D) Amazabal, 1

7.- Zenbat kilometro karratu dauzka Leitzak?

- A) 38
- B) 48
- C) 58
- D) 68

8.- Nola du izena «Kakazelai» deitzen dioten paraje horrek?

- A) Inguruarte
- B) Ingute
- C) Inguruko ate
- D) Ingutarte

9.- Leitzako antena dagoen mendiaren izena zein da?

- A) Aizan
- B) Biuztain
- C) Baztarla
- D) Eguzkizko Muñoa

10.- Zein da Leitzako eskolaren izena?

- A) Amazabal
- B) Txaragorri
- C) Aizan
- D) Erleta

11.- Zein da Leitzako institutuaren izena?

- A) Amazabal
- B) Txaragorri
- C) Aizan
- D) Erleta

12.- Zer mendetako da Leitzako elizako erretaula?

- A) XII-XIII. mendeetako
- B) IX-X. mendeetako
- C) VI-VII. mendeetako
- D) XVII-XVIII. mendeetako

13.- Zein da Leitzako mendirik altuena?

- A) Guratz
- B) Irumugarrieta
- C) Aritz
- D) Eguzkizko Muñoa

14.- 1996ko erroldaren arabera, Leitzan euskalduna da herritarren

- A) % 90 inguru
- B) % 80 inguru
- C) % 70 inguru
- D) % 60 inguru

15.- Zenbatero banatzen da Ttipi-Ttapa aldizkaria?

- A) Astero
- B) Hamabostero
- C) Hilero
- D) Ahal den guztietan

16.- Zenbat ume jaio da Leitzan, bataz beste, 2000, 2001, 2002 eta 2003 urteetan?

- A) 10 inguru
- B) 20 inguru
- C) 30 inguru
- D) 40 inguru

17.- Zenbat taberna (jattetxeak eta kafetegiak barne) daude gaur egun Leitzan?

- A) 9
- B) 13
- C) 17
- D) 20

18.- Zein da gure eskualdeko herririk handiena (azalera edo lurraldeari dagokionez)?

- A) Arano
- B) Areso
- C) Goizueta
- D) Leitz

19.- Zein da Leitzako mendi taldearen izena?

- A) Aurrera
- B) Aritz
- C) Mendibil
- D) Labate

20.- Saharako haurren egonaldia Leitzan antolatzen duen taldearen izena zein da?

- A) Leitz Sahararekin
- B) Saharar Herriarekin Elkartzasuna
- C) Leitz-Sahara
- D) Aupa Sahara

### ERANTZUNAK:

q -0Z	a -+1	c -7
c -61	p -31	c -6
c -61	p -71	p -5
c -81	1 -11	4 -a
p -71	p -01	p -3
p -91	c -6	p -2
p -51	a -8	p -1

a).- 15 eta 20 artean asmatu dituzu: nahi duzunean Marmariren egoitzatik pasa zaitez leitzar petoaren titulua jasotzera.

b).- 10 eta 15 artean asmatu dituzu: titulurik ez dizugu emanen, baina bigarren aukera izanen duzu. Ea hurrengoan

c).- 5 eta 9 artean asmatu dituzu: aizu, non bizi zaren ba al dakizu?

d).- 0 eta 4 artean asmatu dituzu: ez duzu barkaziorik! Hobe duzu telebista gutxiago ikusi eta zure inguru hurbilari pixka bat erreparatzen hastea.

# TXISTEAK

Kontsulta bat ba omen zuen *adibino* batek, edo iragarle batek. Eta hantxe atean jartzen omen zuen: *adibinoa*, iragarlea. Atea jo du batek eta: «kan, kan, kan». Eta barrutik hotsa:

— Zein da?

— Joder, a ze *adibinoa*, banoak hemendik!

Gizon bat traktorean trankil-trankil doa, eta halako batean atzetik motor bat etorri zaio, traktorea jo eta airean joan da hogeit metro. Traktoreko gizona ziztu batean joan da eta esan dio:

— Minik hartu al duzu, minik hartu al duzu?

Eta besteak:

— Aizu, hurrengoan trapu gorri bat-edo jarri atzean!

— Bai! Traktora ez duzu ikusi, eta trapu gorria ikusiko duzu zuk!

Familia batean denak bildu omen dira eguberrietan, eta gazteak aitonari galdetu dio:

— Aitona, aitona! Ikusi al duzu nire tripia?

— Ez, eta zuk pasilloko elefantea?

Aita-semeak sukaldean, eta semeak esan dio aitari:

— Aita, aita, begira, nik Alemaniara joateko asmoa dut, eta Alemaniara joan egingo naiz.

Eta aitak, egunkaria irakurtzeari utzi gabe:

— Beno, nahi duzuna egin ezazu, baina sei t'erdietarako etxean.

Hileta baten ondoren, gorpua bertan zela, denak etxean elkartu ziren. Eta kristoren pena, eta gorputzaren aurrean batek:

— Ez gara deus ere, ez gara deus ere.

Eta ondokoak:

— Gu ere ez, baina kafea ematen dute eta.


## EROSKOPOA



**ARIES:** eozin enpresa kimikok beño kei gehio botatzen dozo. Noiz utzi behar diozo erretzei?



**TAURUS:** Taurus za, beño horrek ez to esan nahi adarrak jarri dizkizuenik. Jeloskorregie za.



**GEMINI:** Naturiste bihurtu al za? Belar mota guzik dittozo etxen, guzi-guzik...



**CANCER:** Elurreta joateko plana itten dozonen, zeatik ez tozo zuzenen anbulantzie eskatzen?



**LEO:** Hortzak garbitzen hasi zaretik, askoz hobeki moldatzen za neska launekin, ez?



**UIRGO:** Ba al dakizo iratzargallue izeneko tramankuloai esker, eunero lanea garaiz iristea lor dezakezola?




**LIBRA:** Oso txuletagille ona omen za, beño kontue da gero, azterketan zure letra ulertzeko gai izan behar dozola. Bestela, akabo!



**SCORPIUS:** Ipurdi politte dozola esan zizuenetik, ez tozo jertsea gerrin bueltan jarri nahi...




**SAGITARIUS:** Zeatik ez tiozoa, xur horrek, iñoiz tragoxkik atetzen launei?



**CAPRICORNIUS:** Oartu al za? Futbolik gabe re bizi ditteke...



**AQUARIUS:** Launei kasu in ta parrandaz parranda ibilli beharren, noizen behin mendire joanen baziñe...



**PISCIS:** Urtezarra neskatan ta mutilletan ibiltzeko eun ona dela dioa...

# zer diozu?

eta zuk,

## Maxux Sukuntza



- Baratzean ikusita, banabarrak eta lekak ezberdintzen al dituzu? **Bai**
- Musikak eragiten al du zure animoan? **Gehienetan bai**
- Nola esaten da gaztelaniaz «puska biltzea»? **Pillar cacho, ez?**
- Zertarako balio dute tenporek? **Neri deustako ez, osabari galde-tu beharko**
- Zein da Leitzako txokorik ederrena, zure ustez? **Antenatik dagoen bista**
- Zein da Leitzako txokorik itsusiena, zure ustez? **Bai al dago?**
- Noiz bihurtzen da gaztea heldu? **Batzuk inoiz ez**
- Edaririk preziatuena? **Sagardoa**
- Sukaldean moldatzen al zara? **Bueno, saiatzan gara**
- Leitzako kaleak non hasi eta non bukatzen diren ba al dakizu? **Ez denak**
- Lanbidea aukeratu ahal izanez gero, zer aukeratuko zenuke? **Ez dot lanik aukeratzen, nahi nuena eman didate**
- Telebistako programa arroxak (ba ote besterik?) ikusten al dituzu? **Etxen nagoenean bai, ze erremedio**
- Zerk jartzen zaitu sutan? **Nere ahizpek**
- Zerk lasaitu edo erlaxatzen zaitu? **Ixiltasunek**
- Zerk poztzen zaitu? **Umek eta lagunek**

## Edurne Lamuedra

- Baratzean ikusita, banabarrak eta lekak ezberdintzen al dituzu? **Ez oso ongi**
- Musikak eragiten al du zure animoan? **Bai, asko**
- Nola esaten da gaztelaniaz «puska biltzea»? **Ez dakit**
- Zertarako balio dute tenporek? **Egingo duen eguraldia jakiteko**
- Zein da Leitzako txokorik ederrena, zure ustez? **Santa kruz ingurua; asko maite dudan tokia da**
- Zein da Leitzako txokorik itsusiena, zure ustez? **Fabrika ingurua**
- Noiz bihurtzen da gaztea heldu? **Bizitzeko ilusioa galtzen duenean; adinak ez du zerikusirik**
- Edaririk preziatuena? **Ura**
- Sukaldean moldatzen al zara? **Bai, asko gustatzen zait**
- Leitzako kaleak non hasi eta non bukatzen diren ba al dakizu? **Ez, oraindik ere izen asko ez dakizkit**
- Lanbidea aukeratu ahal izanez gero, zer aukeratuko zenuke? **Orain egiten dudana, gizarte hezitzailea**
- Telebistako programa arroxak (ba ote besterik?) ikusten al dituzu? **Noizbehinka**
- Zerk jartzen zaitu sutan? **Norbaitek gauza bat egin behar duela esan eta gero esandakoa ez betetzea**
- Zerk lasaitu edo erlaxatzen zaitu? **Mendira joan eta dantza egiteak**
- Zerk poztzen zaitu? **Nire aitaren herrira joateak**

